

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Biharko sokari tiraka



amaika aldiz entzun dugu azken asteotan garai berri baten atarian gaudela eta estrategia zaharrak berritu beharko ditugula aurrerantzean. Bale, konforme.

Oraindik ditzosozko “gu” hori definitzeko arazoak baditugu ere jo dezagun bagarela, eta jakina, bagarela badakigula.

Baina “besteek” aldatuko al dituzte euren estrategiak? Hasi gara galderekin, seinale txarra.

Harira. Orain urte batzuk Nazioarteko Sokatira Federazioak (TWIF) euskal sokatirlariak nazio mailako lehiaketetatik at utzi zituen. Ez zien debekatu soka beraien aldera eramaten saia zitezen, baina soilik utzi zien klub arteko txapelketetan parte-hartzen.

Urteetan, gureak goi mailan arituak ziren Europako nahiz munduko txapelketetan idatzi gabeko hitzarmen bati esker. “Itxurak gordez edo itxurak eginez, sinboloen borrokan murgildu gabe parte har ezazue eta ospakizunen garaia iristen denean nahi duzuenaren egin” zen hainbeste urtetan indarrean izan zen hitzarmen haren muina.

Egun batean, arrazoi osoz edo ez, hitzarmena apurtu genuen arte. Harrezkeroztik sokatiraren maila jaitsi egin da gurean. Zaila da negu beltzeko entrenamenduetan atzamarak eta gerriak apurtu arte sokari tiraka aritzea gero nazioarte mailan nor garen erakusteko aukerarik ez badugu.



DANI BLANCO



Garai berri batean
izanik, estrategia
zaharrak berritzeko
asmotan jo zuten
gure ordezkariak
geurea defendatzera,
baina ez da egoera
berririk izango
agintea duenak
garaile sentitzen
badu bere burua



Eta gure ohiturari jarraituz TWIFeko arduradunei bota genien errua, batik bat Co Koren presidenteari. Holandarrak utzi zuen bere kargua eta bere ordezkari Catal McKeever ipar irlandarra jarri zuten. Pasa berri den urriaren 22an bilera bat egin zuten Belfasten gure ordezkariak eta TWIFeko arduradun nagusi berriak eta iparraldetik etorri zaigun haizeak behe lainoa besterik ez digu ekarri.

Euskal Herriak sokatira arautzen duen erakundearen barruan kide ofiziala izatea du helburu eta eskaera erabat legezkoa da, batik-bat kontuan izanik sokatirak Espainiako Estatuan ez duela ordezkariarik. Hau ere ez al da arazo politiko baten ondorioa?

Garai berri batean izanik, estrategia zaharrak berritzeko asmotan jo zuten gure ordezkariak geurea defendatzera, baina ez da egoera berririk izango agintea duenak garaile sentitzen badu bere burua. Garaile sentitzeak, haien zatitza behintzat, esan nahi du norbait menpekota dutela, eta hori bide okerra da.

Marra berri bat jartzearen aldekoa naiz. Orain artekoa eta hemendik aurrerakoak. Lehenak erakuts dezala geroan atzea nola dantzatuko dugun, baina zein doinutan mugituko garen geuk erabakitzekotan.

Sokatiran atzera egiteak balio du, baina aurkaria erakarririkotan errespetuz bostekoa ematen jakin behar da ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



garaian nabarmentzen da askotan jendea. Gure koadrilan behintzat, hala izan da. Txistek sortzeko gauza direnak izaten dira bestela ere adimentsuenak eta berez edozein egoeran besteentzat erreferentzia bilakatzen direnak. Inor mindu gabeko ironia erabiliz, bere abstrakzioek pentsatzeko bideak irekitzen dituztenak dira taldean estimatuenak, nolabaiteko lidergoa irabazten dutenak. Era berean, tontoenak bereizteko test politikak dira egindako txistek, graziosak izaten saiatu eta pena besterik ematen ez dutenak nabarmentzeko. Eman dezagun

Adarra jotzeko

Urkulluri tximistak jo eta etxea suak hartu eta erretzen zaiola. Suertekoa izan eta garaiz irtenda ez du bera suak harrapatu. Herriko kazetariak honela ematen du berria: “Lau xigarro xixtrin pixtu eta bertan kixkali”. Ez dut duda izpirik egiten, hori irakurrita bera ez ezik ingurukoen lehen desioa mezulariari Sanjoanak itxaron gabe su ematea litzateke. Normala. Gizatiar oso, burura txisterik ez lekarkeena. Bermeoko EAJren mitinean Urkulluk kazetari tontoenena egin du uholdeak lau ur tiantora ekarritik, Bilduren bizkar jarraitzaileen txaloak, bibak eta algarak piztuz. ■

